ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS BIDEA

(1) - Hamahirugarren mendean gatarka aiphatuena zein izan zen?
(2) Hamalau garren mendean nafartarrak noren heide ziren.
(3) 1839eko lehenengo nola deitzen zen.

(II) ZER GINEN eta ZER GIREN. (3)

Hamairu garren mendearen hastapenean girixtinotasuna Espainian hedatu zelarik, eta moruak ohildu nahi zituztelarik, Nafartarren laguntza galdegin zuten; eta gu Andaluciako lurretaraino yuan ginen heien laguntzan bizpahiru aldiz.

Las navas deithu borrokaldian Nafartarrek, *Sancho el Fuerte* gure erregea buru, garaitu eta xahutu zituzten moruak.

Moruen erregea eta bere aitzindariak burdinezko gathina hesi baten barnean zauden gerizatuak, bainan gureek h[illegible]si zituzten gathinak, eta han yauzi eginik harrigarrizko sarraski bat egin ondoan, erhautsi.

Berantago, Frantziako París hiri nagusia Anglesek inguratua eta sethiatua zutelarik (hamalau garren mendean), Nafartarrek beren errege Carlos bigarrenaz kudeatuak, garaitu zituzten Anglesak eta hiri gosetuaren atheak idoki.

Paristarrek, Nafartarren sartzeari ospe haundiak egin zituzten, eta gure ikhurrinak edo banderak alderdi guzietan landatu hango karriketan, gerthakariaren ohoratzeko.

Nafartarrek Normandian ere baginituen lurrak, eta Cherbourg itsas bazterreko hiri aiphatua gure menekoa zen; eta hango kanoi eta bertze gudako tresnak hemen egiten ginituen.

Horra bilduma labur huntan Nafarroako gerthakari larrienak hitz gutiz erranak, ene saila ez luzatzeko.

Zein ahaltsua zen eta ze kalipu suharrak zituen Nafarroak, bere laguntzak hedatzeko herritik kanpo, Frantzian, [illegible]saleme eta Lur Sainduetan. Grezian, eta Espainian gain[illegible]

Horra zer ginen 1512 garrenaren artio.

Espainiarrek bereganatu ginituztenian utzi zauzkiguten ~~zitzakun~~ gure fueroak edo lege zaharrak. Bainan 1839 garren urthian khendu zauzkuten.(1) Berantago, 1841 an antalamendu bat eginik zonbait lege zahar, puska ardietsi ginituen.

Bainan zimiko bat hemendik, eta ausiki bat handik, emeki emeki arrunt edo ahantxu buluzi gituzte gure behialako lege zahar ederretarik.

Eta ephe laburrik barne Espainiako edozein *probintziaren* lerroan ezarriko gituzte azkarki uztartuak.

Horra zertaratu gituzten. Huna zer giren oraiko egunean.

* (*La Voz de Navarra*, 1934/2/13)

(1) edo zauzkiguten

(III) ADITZ IKASKUNTZA.

31 xahutu zituzten 32 utzi zauzkiguten
33 buluzi gituzte 34 Huna zer giren.

31. UKAN. Indicatif Imparfait.

O.S	O.P.
Nik nuen (je l'avais)	nituen (je les avais)
Hik huen	hituen
Zuk zinuen	zinituen
Harek zuen	zituen
Guk ginuen	ginituen
Zuek zinuten	zinituzten
Heiek zuten etc.	zituzten etc.

32. UKAN. Conj. à dble Cplt. Indic. Imparfait

O.S. . C.I.P. . Gure = à nous
Zuk zinaukun = vous nous l'aviez
Harek zaukun = il nous l'avait
Zuek zinaukuten = vous nous l'aviez
Heiek zaukuten = ils nous l'avaient
Emaiten zinaukun = vous nous le donniez

O.P. . C.I.P.
Zuk zinauzkigun = vous nous les aviez
Harek zauzkigun = il nous les avait
Zuek zinauzkiguten = vous nous les aviez
Heiek zauzkiguten = ils nous les avaient
Emaiten zinauzkigun = vous nous les aviez

33. UKAN. Conj. trans. à Compl. direct. Pron. personn.

Indicatif Présent : Gu = nous.
Zuk gaituzu (gituzu) = vous nous avez
Harek gaitu (gitu) = il nous a
Zuek gaituzue (gituzue) = vous nous avez
Heiek gaituzte (gituzte) = ils nous ont
Ikusten gaituzu = vous nous voyez